

		DATA	ETAPA	
		2011ko azaroa	Haur Hezkuntza	
GAIA: Haur Hezkuntzako Proiektua. 2012/13 ikasturtea.				
Donostia				

HEZKUNTZA ESKAINTZA

Helburuak

Gure hezkuntza jardueraren muina ikaslea da. Ikasleari bere nortasuna modu sendoan eraiki dezan behar dituen tresnak eskaini nahi dizkiogu gure lanaren bidez, emozio zein intelektual arloan dituen gaitasun guztiak garatzen lagunduz, eta bereziki autonomia pertsonalaren eta sozializazioaren garapenari erreparatuz.

Neska-mutikoak ikastetxean pozik eta gustura egotea bilatzen dugu, taldean erabat txertatzea, eta ikastetxearen berezko izaeran oinarritutako kristau heziketa jasoz, funtsezko hainbat balore bereganatu eta barneratzea, hala nola, errespetua, tolerantzia, aniztasuna eta elkartasuna.

Helburu horiek guztiak erdietsi ahal izateko, espazio desberdinetan hainbat arlo lantzen ditugu, hots, sormena, joko sinbolikoa edota mugimendu-eremua, besteren artean. Ikaste prozesua bizipenetan eta jolasetan dago oinarritua.

Laburbilduz, gure hezkuntza jardueraren helburu nagusia, arlo guztietan gizakiaren heziketa progresibo eta osoa lortzea da.

Aurre izen-ematea

Aurre izen-emate epea urte guztian izango da zabalik.

Matrikula

Haur Hezkuntzako lehen zikloa (urtebeteko haurrak): urte guztian zehar.

Haur Hezkuntzako lehen zikloa (2 urteko haurrak) eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloa (3 urtetik 5era bitarteko haurrak): Eusko Jaurlaritzaren araudiaren arabera.

Giza taldea

Hezkuntza jarduerari kalitatea ematen dion perfiledun hezitzaile taldea daukagu.

ORDUTEGIAK

H.H.ko lehen zikloa: 7:30etik 19:00etara.

H.H.ko bigarren zikloa: - goizez 09:15etik 12:45era.
- arratsaldez 14:45etik 16:45era.

ESKOLA EGUTEGIA

Urtebetekoentzat: haurtzaindegi-egutegia, abuztuan izan ezik.
Bi urtekoentzat: eskola-egutegia edota haurtzaindegi-egutegia hautatzeko aukera.

3, 4 eta 5 urtekoentzat: eskola-egutegia.

INSTALAZIOAK

Gelak eta ekipamenduak.

Adin eta etapa bakoitzaren ezaugarri eta beharrei egokitutako espazio zabal eta argitsuak dauzkagu. Haurren neurrira egindako espazioak dira, funtzionalki egituratuak, eta zentzumenentzako gustagarri izan daitezen estetika bereziki zaindua dutenak. Eraikinaren diseinua, ikasketa prozesurako lagungarri izango den giroa sortzeko dago pentsatuta.

Instalazio nagusiak: areto nagusia, kaperak, psikomotrizitate gelak, musika gelak, liburutegia, marrazketa gela, haurtzaindegia, jangela, sarbide arrapalak, eskola-baratzea, komunak, ikasketa-gela zabalak,....

Jolaserako instalazioak: jolastoki estali eta estali gabeak, terrazak...



ZERBITZUAK

Idazkaritza eta Administrazioa

Haurtzaindegia

Ordutegia:

Goizez 7:30etik 8:45era. Prezioa: 35 euro.

Ikastetxeak doako haurtzaindegia dauka Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako eta baita aukera bezala eskola-ordutegia hartu duten 2 urteko gelako haurrentzat ere. Nori dago zuzendua? Arrazoi bereziren bat dela eta haurrak ikastetxean klaseak hasi aurretik edota ondoren utzi behar dituzten familiei.

H.H.ko bigarren ziklorako doako haurtzaindegiaren ordutegia:

- 8:45etik 9:15era.
- 16:45etik 17:15era.

Jangela

Ikastetxean bertan egindako janaria eskaintzen duen jangela handi bat daukagu. Gure menuak ikasleen beharretara egokiturik daude.

Ikastetxeko autobusa

Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa

Arreta pertsonala familiei.
Arreta korreo elektronikoko bidez.

Pastoral departamendua

Ikastetxeak, urte betetik 18 urte bitartera hartzen dituen ikasleentzat, eskarmentuan eta bizipenetan oinarritutako eta egoki sekuentziatutako plan pastoral eskaintzen du. Txikienekin erlijioranzko sarbidea gurasoekin batera egiten dugu familia-pastoralaren bidez.

Kanpo-ekintzen departamentua

Dantza eta erritmoa.
Judoa.
Antzerkia.
Musika eta jolasa.
Haurrak beti jolasean.

Guraso eskola

Guraso elkartearekin batera antolatuta, formazio hitzaldiak eskaintzen dira. Gurasoentzat ikastaroak FEAC-en bidez.

Orientabide departamentua

Arazoren bat antzeman, diagnostikatu, gomendioak eman, esku hartu edota arreta berezi bat eman ahal izateko, gaian adituak direnez osatutako psikopedagogiako kabinetea dugu. Talde honen eguneroko presentzia eta gertutasunak komunikazioa, elkarrizketa, hartu-emana, koordinazioa, ekintza bateratuak eta, batik bat, neska-mutil bakoitzaren beharretara zuzendutako arreta errazten ditu.

METODOLOGIA	
Hezkuntza oinarriak	<ul style="list-style-type: none"> -Ikaskuntza pertsonalizatua, haur bakoitzaren beharretara egokitua. -Adimen emozionala: gure ikasleei, afektiboki inguru eta kultura bati lotuta, gizaki autonomo bezala hazten lagundu. -Arlo psikomotorra: era globalean gure ikasleen garapen parametroak erraztu. -Musika: gorputz adierazmenaren, erritmoaren, sormenaren eta musikaren gozamenaren garapenean eragin. -Egokitzapena. -Ingelesa: 3. hizkuntza bat ezagutzen hasi. -Liburutegia: irakurzaletasuna sustatu.
Txokoak Norbere heltze mailetatik abiatuta garatzen joateko: Helburuak: <ul style="list-style-type: none"> - Lanaren arduraren hezitzea. - Denbora antolatzen ikastea. - Norbere gaitasunez, nahiez, emozioez eta sentimenduez jabetzea. - Autonomia maila areagotzen joatea. - Sozializazioa garatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lan txokoa (irakurketa, matematika). - Plastika txokoa. - Etxe edo denda txokoa. - Eraikuntza txokoa.
Saio kolektiboak	Ikastorduetan zehar, gelako haur talde osoak bere bizipenak adierazteko uneak. Une horietan haurrek mezuak eta iritziak helarazten dizkiete gainerakoei, eta aldi berean, ikaskideenekin bere buruak aberastu egiten dituzte ikaskuntza berrietara ailegatuz eta, honen ondorioz, heldutasuna garatuz.
Proiektuak	<ul style="list-style-type: none"> - "Pelutxe" proiektu telematikoa. Teknologia berriak ezagutu eta irakurketa-idazketa sustatzeko. - IHP (Ikastetxeko hizkuntz proiektua). B eta D ereduak, DBHren bukaeran gure komunitateko bi hizkuntz ofizialen menperatzea bermatzeko. - Artistikoa: sormen gaitasunaren garapena eta autoestimua errazteko.
Irteerak eta bisita kulturalak	<ul style="list-style-type: none"> - Hainbat irteera eta bisita gelako programazioaren arabera.
Udako ekintzak	Ekintza bereziak eskaintzen dira uztaileko.
Harremana beste hezkuntza etapekin	<ul style="list-style-type: none"> - Gabonak: Olentzero, Errege magoak. - Danborrada. - Inauteriak. - Ikastetxeko jaiak.